

Egunik ez, ikasle eta sektoreko profesionalentzat

Egutegi arazoak direla-eta, aurtengo Euskal Disko eta Liburuaren Durangoko azokak ez du izango irakaskuntza zentroei eta sektoreko profesionaleri zuzenduriko egunik. Abenduaren 4an hasiko da, larunbatean. Egun bat

lehenago hasiko balute, abenduaren 3an, sei egun iraungo litzuke, eta Gerediaga elkarte-ko lehendakari Nerea Mujikak adierazi duenez, «esperientziak esaten digu azoka egiteko sei egun gehiegi direla». Datorren urtean

berreskuratuko dute egun hori, «egutegiak utziz gero». Hala eta guztiz ere, irakaskuntza zentro batzuek eginko eskaerak erantzun, eta azokan izango diren nobedadeen gaineko informazioa bidali diete.

◉ Azoka zenbakitan

Aurrekontua: 490.000 euro
Erakusmahaiak: 297
Liburu berriak: 310 (euskaraz), 71 (gaztelaniaz) eta 1 frantsesez
Disko berriak: 60
Aldizkariak: 32
Bideoak: 23
Interneteko atariak eta edizio digitalak: 18

◉ Egitaraua

Abenduak 4

11:30: 'Ilargiaren sekretua' Hik Hasik ekoiztutako filmaren emanaldia San Agustinen.

12:30: Agirriaren eta Monzonen mendeurren dela eta, ideologien bilakaera'. Hizlaria: Xabier Apaolaza.

18:00: Euskal Pen Klubaren aurkezpena.

19:00: 'Supertramps' filmaren aurkezpena, Jose Mari Goenaga eta Iñigo Berastegiren eskutik.

20:30: Txillardegiri Argizaiola saria emango diote.

Abenduak 5

12:30: Txillardegiren 'Huntaz eta hartaz: Errealitatearen eta ametsen geografia' izenburuko hitzaldia.

18:00: Bernardo Atxagaren hitzaldia: 'Lekuak literaturan'.

Abenduak 6

12:30: Jesus Mari Olaizola Txilikuren 'Irudimenaren gerezpean' izenburuko hitzaldia.

18:00: Unai Elorriagaren 'Tranbiaren leihotik begirada bat' hitzaldia.

19:30: Txistu kontzertua Andra Mari basilikan.

20:00: Joserra Senperena, Jose Inazio Ansorena, Andoni Egaña, Jon Maia eta Kirmen Uribereren kantaldia San Agustín kulturgunean.

Abenduak 7

12:30: Mikel Markezen 'Pentagramaren geografia' hitzaldia.

17:30: Euskal zinemaren egoerari buruzko mahai-ingurua.

Gidoiariaren elkarte, Aktoreen Batasuneko eta Zuzendari Berrien Plataformako ordezkari banak parte hartuko du. Fito Rodríguez idazleak zuzenduko du.

22:00: Hiru Trukuren kontzertua San Agustín kulturgunean, 'Nafarroako kantu zaharra' disko berria aurkezteko taldeak emango duen lehen.

Abenduak 8

17:30: '25 urte eta gero... euskararen normalizazioarako erronkak' mahai-ingurua. Partehartzaileak: Gabi Basañez (EHE), Mertxe Mujika (AEK) eta Joan Mari Larraite (EKT).

JON IRAZABAL ◉ DURANGOKO AZOKAKO ZUZENDARIA



«Eraikin berria txiki geratu zaigu jada»

ILAN B. / ARGAZKI PRES

I.B. - DURANGO

Azokak irauten duen bost egunetan ez ezik, aurreko hilabeteetan ere gogor lan egiten dute Gerediaga elkarteak kideak, dena behar bezala arera dadin. Jon Irazabalek urte arko egin ditu azokako zuzendari. Egun hauetan ere buru-belarri ari da lanean. Jo ta ke, baina ilusio handiz. **Landako erakustazoka eraiki eta Gerediaga elkartearen urteetako eskakizuna asebetu zuten Durangoko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak iaz. Zer balorazio egiten duzu karparen segurtasun ezatik Landakoren aterpe sendora emandako aldaketaz?**

Ona. Oso ona. Landako eraiki-

nak duintasuna eman dio azokari. Karparekin inprobisazioan ibili behar izaten genuen askotan. Eguraldiaren menpe lan egiten genuen, esaterako. Eraikuntza berriak horma finkoak ditu, eta horrek segurtasuna ematen dio, zalantzarik gabe. Hala eta guztiz ere, pareta finkoak edukitzeak ere baditu muga batzuk.

Zer muga?

Azoka espazio jakin baten arabera antolatu behar dugu, hau da, Landako eraikinaren barruan. Urteik urtera erakusmahaiak jurrri nahi dituzten elkarte eta erakundeak eskaera gehiago jasotzen ditugu; Landako barruan, baina, ez dago guztientzako tokirik. Eraikina txiki geratu zaigu,

zorionez, euskal kultura egunetik egunera haziz doalako.

Eskaera guztiei aurre egin ahal izateko, konponbideren bat pentsatu al duzue?

Denentzako lekua egiten saiatuko gara. Landako-ko paretak ezin ditzakegu mugitu, baina aldameneko plazan zer edo zer jartzea pentsatzen ari gara. Hori guztia datorren urtera begira, jakina.

Berritasun ugari aurkezten ditu Durangoko azokak urtero. Nobedade ananda. Aurten, gainera, Gerediaga elkartearen eta azokaren irudi berriak aurkeztu dituzue. Aro berrira begira dago azoka? Zer erronka berri ditu aurrera begira?

Durangoko Azoka aspalditik

◉ Aurtengo Argizaiola saria

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA 'TXILLARDEGI'

Idazlea

Ideietan tinko

Orain dela 50 urte eta gaur egun ia berdin pentsatzen dut, ez naiz aldatu. Ez euskarari buruz, ez Euskal Herriari buruz... Hala zioen Txillardegik orriotan, aurtengo iraillean. Hori izan daiteke beretzat definitziorik onenetakoa: ideiak beti tinko defendatu dituen mirantearena. Ideiak, bi: euskara eta Euskal Herria. Edo bakarra, berak dioenez, Euskal Herria euskararen herria delako etimologikoki, eta euskara gabe ez dagoelako Euskal Herria.

Txillardegik ekintzailea izan

da, batez ere. Borroka bera, boterea lortzeko baino, askatasunerako eta duintasunerako biderik onena dela pentsatzen duenetakoa da. Ekintzailea, beraz, eta sustatzaile eta bultzatzailea ere bai. Euskal Herria Euskaraz taldearen sortzailea, esaterako, edo ETArene. Berak bidali zion Eusko Jaurlaritzari gutuna 1959ko uztailaren 31n, erakunde armatuaren sorreraren berri emanez.

Politikari eta sustatzaile, beraz, baina ez hori bakarrik. Hizkuntzalaritza izan du beti lanbide, eta euskal azentuaz egindako lana, esaterako, garrantzi



JOSE LUIS ALVAREZ / PRES

handikoa izan da gramatikalarik askorentzat. Euskara batuaren defendatzaile sutsu agertu ohi da, eta 1957tik euskaltzain urgazlea da, baina, arrazoi politikoak tarteko, euskaltzain osoa izatea ukatu egin diote beti. Hizkuntzaren akademian hutsik nabarmenena izan da Txillardegirena.

Hizkuntzalarria, beraz, baina ez hori bakarrik. Idazlea ere

dago aro berrira begira. 1975etik, hain zuzen. Urte hartan nobedadea izan zen. Orduko euskarazko liburuak hartu eta azoka antolatu zuen Gerediaga jende guztiari begira. Madrilen eta beste hainbat lekutan egiten zen bezala. Lotsa barik euskarazko kultur produktzioa plazaratu zuen azokak. Garai bakoi-tzak baliabide zehatz batzuk ekarri ditu eta Gerediaga horiek guztiak aprobexatu ditu azoka antolatzeko.

Karpan kostata egin zitezkeen zuzeneko literatur eta musika ekitaldiak egin litezke orain, Landako eraikinean nahiz Plateruena kafe antzokian. Horren arabera programa antolatu al duzue?

Berbaro elkarteak eta Plateruena kafe antzokiak beren programazio propioa antolatu dute azokak iraungo duen egunetarako. Hau guztia berria da, eta datozen urteei begira ikusi beharko dugu nola antolatu dena, orain espazio gehiago daudelako, eta azokaren egitaraua leku haietara ere zabal daitekeelako.

Sarrera kobratuko zenuela zioen zurmurrura zabaldu zen orain hilabete batzuk. Aztertu al duzue aukera hori?

Azokak diru iturri berriak behar ditu, eta sarrera kobratu edo ez aztertu genuen elkarteak. Baina azkenean, sarrera kobratu aurretik, enpresa pribatuei dirua eskatzea erabaki genuen, nahiz eta ezer berririk lortu ez. Baina aurten behintzat ez da sarrerarik kobratuko.

Eta datorren urteotan?

Ez dakigu. Oraingoz behintzat ez.

izan da, eta lehen euskal eleberrri modernoak berak idatzi zuen 1957an. Leturiaren egunkari eskutua hark erregistro berriak ekarri zituen euskal literaturara, eta hurrengo lanekin ere —Peru Leartzako eta Elsa Scheelen— bidea erakutsi zion jende askori.

Eta idazlea izan da, baina ez hori bakarrik. Herri Batasunako kide historikoa ere izan da Txillardegik, eta Aralar alderdia sortu zenetik engaiatuta aritu da, berriro ere, politikari. Berak dio ez dela mugitu, beti egon den tokian dagoela. «Ni ezker abertzalean nago. Aralarren nago, eta ez nago Herri Batasunan, lehen egon nintzen bezala, ETA hor dagoelako; eta, nire utzez, ETA memento honetan kaltegarria delako».

Txillardegik: betiko bi ideia horiek tinko defendatu.